



## EGOERA EKONOMIKOA

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen egoera ekonomikoa normalizat jo dezakegu; izan ere, zerbitzuak emateko eskuragarri dituen baliabide ekonomikoak ematen dituen zerbitzuen guztizko kostua baino apur bat txikiagoak badira ere, ontzien eta paperaren gaikako bilketaren (“Ecoembes” sozietatearen bitartez egina) ondoriozko finantzaketarekin, diru-sarrera finantzarioekin eta lurpeko edukiontzietan bildutako paperaren eta kartoiaren salmentarekin estaltzen du alde hori.

### **Aurreikusitako jardun berriak:**

Proposatzen da helburu gisa % 60ko birziklapen-kadentzia lortzea urtearen amaieran, honako jardun hauekin:

- Proposatzen da Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak ematea gaikako bilketak areagotzeko, hau da, ohartaraztea hondakin biodegradagarrien bilketa hedatzeko, aurreikusten dela, horrek dakarren kargaren areagotzea dela medio, plantilla handitzea bi gidari eta kargatzaile bat gehiago jarritz; horiei esker ahalbidetuko baita egurra, papera, kartoia eta hondakin biodegradagarria sortzen duten hondakinak berezita biltzea aukeratzen duten enpresak gero eta gehiago izatea.
- Ekintza horiek gauzatzeko laguntzeko eta partaidetza areagotzeko, aurreikusten da datorren ekitaldian ingurumeneko teknikari bat kontratatzea; teknikari horrek herritarrek, orokorrean, enpresek eta hondakin birziklagarrien produktore ertain eta handiek gaikako bilketetan duten partaidetza dinamizatu eta kontrolatuko du.
- Azkenik, aurreikusten da hondakinak “edukiontzien sistema” izenekoaren bitartez biltzeko sistema abian jartzea Debako eta Mutrikuko udalerrietan; horretarako, inbertsio handia egin beharko da baliabide materialetan, edukiontzietarako sarrera kontrolatzeko sarrailak dituzten edukiontzietan, ontzietarako edukiontzietan, komunikazio-kanpainetan, txartel magnetikoetan, eta abar.

### **Gastu-aurreikuspena:**

1. Aurrekontu honetan, langileengatiko gastuari buruzko kapituluan jasotako gastuari eustea proposatzen da; aurreko ekitaldian bezala, 2013. urteaz geroztik, ez ordetzean oinarrituta dago euspen hori, betiere ahal den heinean; horretarako, ez litzateke kontratatuko zuzeneko laneskuko behin-behineko langilerik, ezintasun iragankorreatik, laneko istripuek eragindako ezintasunagatiko edo baimena baliatzeagatiko bajak ordetzeko, udalerrri bakoitzean plantillaren % 25 gehienez utziko da bete gabe, eta neurri horrek bideak garbitzeko zerbitzua hartuko du eraginpean; hiri-hondakinak biltzeko zerbitzuaren atalean absentismoa langileak birbanatuz arinduko da, ahal den neurrian, arestian deskribatutako arrazoien ondorioz sortzen diren bajak ez betetzea ahaleginduz.

Atal horretan, Lanpostuen Zerrendan zehaztutako lanpostuak dituzten pertsonen karga espezifiko guztiak biltzen dira, esate baterako, gaueko lanaren plusa, nekagarritasun-plusa, erabateko arduraldiagatiko plusa, hirurtekoak eta gainerako karga sozialak.

Horrez gainera, honako hauei dagozkien gehigarriak ere bideratzen dira: lehenik eta behin, langileen prestakuntza, bigarrenik, pentsio-aurreikuspeneko funtsen sorkuntza, eta hirugarrenik, oporraldiak, aurreikuspenen arabera ezintasun iragankorrean eta laneko istripuek eragindako ezintasunean dauden langileen absentziak eta ekitaldian izango diren unean-uneko bestelako lan-karga batzuetatik eratorritakoak betetzeko derrigorrean egin beharreko ordetzkapenen ondoriozko lan-kargari aurre egiteko behin-behineko langileak kontratatzea.

2016ko aurrekontuan % 1eko soldata-igoera eta langileek zerbitzuak egiten emandako hirurtekoen metatzetik sortutako kostuak hartzen dira kontuan.



Aurrekontu hau 2015eko hasierako aurrekontuarekin alderatzen badugu, ikusiko dugu 2 gaueko gidariren, hiri-hondakinak biltzeko kargatzaile baten eta ingurumeneko teknikari baten lanpostuak sortzea hartzen dela kontuan, eta gaueko/eguneko arduradunaren lanpostu bat gehitzen dela urte osorako; langile horrek gaueko arduraduna ordeztuko du azken horrek libre duenean atsedenaldea eta oporrak direla medio, eta gainerako lanaldietan sarraila magnetikoak dauzkaten edukiontzien mantentze-lanak eta kontrola kudeatuko ditu; era berean, desugertzeko makinaren gidaria gehituko da urte osoan zereginak gauzatzeko.

2016rako aurreikusten da langileen gastuaren zenbatekoa sozietateen arabera honako hau dela:

Debarrena Eskualdeko Mankomunitatea	2.565.650€
Badesa	3.888.689€
Guztira	5.454.339€

2. Gastu arruntei buruzko kapitulua gastu-partida bakoitza xehetasunez kuantifikatuta kalkulatzen da, betiere 2016ko gastuak aurreikusiz, gastuen bilakaera erregistratuaren arabera, eta gastu horien bilakaeraren aurreikuspena –prezioak aurreikusitako % 0ko KPIarekin eguneratzean oinarritua– kontuan hartuta.

Aurreikusten da gastu arrunten zenbatekoa honako hau izango dela 2016an:

Debarrena Eskualdeko Mankomunitatea	4.488.381€
Badesa	1.472.189€
Guztira	5.960.570€

Kapitulu honen barruan aipamen berezia merezi du 2016ko ekitaldian hondakinen altako kudeaketak eragingo duen gastuak izango duen garrantzia. Kudeaketa hori GHK SAUk gauzatu du, eta partida honen zuzkiduraren zenbatekoa 3.455.396€ izango da; partida hori bera bakarrik hiri-hondakinen kudeaketari dagozkion gastu arrunten guttizkoaren % 54,17 da.

Gastuaren partida garrantzitsuenak, sozietate bakoitzaren arabera, honako hauek dira:

Debarrena Eskualdeko Mankomunitatean

- Hondakinen altako kudeaketa, GHK-k gauzatzen duena	3.455.396€
- Paperaren eta kartoiaren gaikako bilketa	195.837€
- Ontzien gaikako bilketa	190.681€
- Altzariak botatzea	45.450€
- Arroparen gaikako bilketa	35.334€
- Abandonatutako txakurrak biltzeko zerbitzua	33.363€

Badesa SAn

- Erregaiak eta motor-erregaiak	332.590€
- Lurpeko edukiontzia konpontzea	225.000€
- 10 litroko edukierako poltsa biodegradagarriak	194.692€
- Ibilgailuen mantentzea eta konponketa	168.554€
- Publizitatea eta Propaganda	60.991€
- Garbiketa-ibilgailuen mantentzea eta konponketa	62.314€
- Pneumatikoen hornidura	34.949€



3. Gastu finantzarioari eta maileguen amortizazioari dagozkien kapituluaren aurrekontuak ezartzeko, funtsean hartutako konpromisoerik aurre egiteko behar den zenbatekoa hartu da kontuan.

Ez Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatean, ez Badesa SA ez da aurreikusten kanpoko finantzaketara jotzea 2016ko inbertsioak finantzatzeko.

Lan-hipotesia da hiruhileko Euriborrari dagokion interes-tasa % 0,165ekoa dela.

Hortaz, aurreikusten da bi sozietateen finantza-gastua 17.606€ izango dela 2016ko ekitaldian, eta era berean, aurreikusten da maileguak itzultzea: 249.794€.

4. 2016ko ekitaldirako aurreikusitako inbertsio gehienak Badesa SAUk egingo ditu, eta bide-garbiketako eta hiri-hondakinak biltzeko zerbitzuak –Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak du jarduera horien eskumena– emateko erabili behar diren baliabide materialen premiei erantzungo die. Inbertsio horiek ibilgailuak eta makineria amortizatua berritzeko izango dira, xede nagusia honako hau izanik: hiri-hondakinak biltzera bideratutako eta edukiera handiko zapaltzeko kutxak dituzten bi ibilgailu, kutxak garraiatzeko errepideko tren bat eta hondakinak zapaltzeko Mutrikuko Transferentzia Estazioan jarriko den gailua erostea.

Halaber, hainbat inbertsio egin dira Debako eta Mutrikuko udalerrietan “edukiontzien sistema” abian jartzeko, guztira 47.120€-ko inbertsioa egin da; zenbateko hori batez ere txipak dituzten edukiontzia ezartzeko izan da, hondakin biodegradagarria eta errefusa biltzeko, biohondakinak eta papera eta kartoia kudeatzeko zaborrontziak metatzeko eta hainbat ekarpen-zentro eraikitzeke materialez hornitzeko, baita Mutrikuko Transferentzia Estazioan pisatze-baskula bat jartzeko ere.

Honako hauek dira inbertsioen zenbatekoak:

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea, BEZa barne	27.266€
Badesa SA, BEZik gabe	884.816€
Guztira	912.082€



## 5. Diru-sarrereren aurreikuspena:

Gorago deskribatutako gastuaren zenbatekoak definitu ondoren, Mankomunitatearen eta Badesaren Aurrekontu Kontabilitateak berdindu egin dira kontableki, eta ondorioztatu da Debarrena Eskualdeko Mankomunitateak daukan defizita estaltzeko 11.712.178,56€-ko zenbatekoa beharko duela. Defizit hori zaborra biltzea eta bide-garbiketa kontzeptu globalengatik Udalek Debarrena Eskualdeko Mankomunitateari egindako transferentzien bitartez sortzen da.

Hiri-hondakinen kuotaren emaitza honako hau da:	8.185.069,80€
Eta bide-garbiketaren kuota:	3.527.108,77€

### Hiri-hondakin solidoen kuotaren kalkulua udalerrien arabera

3 kontzeptutan bereizten da honako hauen gastuak berdintzeko:

- Egitura
  - Edukiontzien manipulazioa
  - Altako garraioa eta hondakinak zabortegian botatzea
- Egituren buruzko gastuek zeharkako laneskuko langileak –produkzioarekin zuzenean lotuta ez daudenak– mantentzetik eratorritako gastuak biltzen dituzte. Kostu hori udalerrien arabera banatzen da udalerririk horetan erroldatutako biztanle kopuruaren arabera.
  - Edukiontzia eta zaborra orokorrean manipulatzetik eratorritako gastuak udalerririk bakoitzak dituen edukiontzien kopuruaren, edukiontzirik motaren eta papera soltean eta zaborra jasotzeko aurreikusitako arduraldiaren eta zerbitzua ematean izango diren hutsarten kalkulua arabera kalkulatu dira. Kostu horiek udalerririk bakoitzarekin lotzen diren mugimendu baliokideen kopuruaren arabera egozten dira, eta udalerririk bakoitzak erabiltzen dituen edukiontzien kopuruaren arabera izango dira batez ere.
  - Altako garraioaren eta Lapatzen botatzearen kostua  
Epigrafe honetan altako kudeaketak eta hondakinen azken tratamenduak eragiten duten gastua biltzen da, jarduera hori GHK SAK gauzatzen du aurrekontuan azaltzen den 3.455.396€-ko zenbatekoaren truke.

Gauzak horrela, ondorioztatzen da gastuak honako hauek direla:

- |  |            |
|--|------------|
| a) Egiturazko kostua                           | 561.810€   |
| b) Edukiontzirik kopurutik eratorritako kostua | 4.167.864€ |
| c) Altako kudeaketak eragindako kostua         | 3.455.396€ |

### Bide-garbiketaren kuotaren kalkulua udalerrien arabera

Zerbitzu honetan estali beharreko defizitaren zenbatekoa 3.527,108,77€ da

Defizit hori hiru zatitan bereizten da:

- Udalerririk bakoitzera bereziki bideratutako zuzeneko laneskutik eratorritako kostua; atal honetan makina bidez garbitzeak eta desugertzeko makina erabiltzeak eragiten duten kostua biltzen da; zerbitzu horiek udalerririk betetzen dituzte udalerririk horiei atxikita ez dauden langileek.
- Udalerririk bakoitzak egiten duen makineriaren erabilera espezifikotik eratorritako kostua.
- Garbiketa-zerbitzua emateari esleitutako egituraren kostua

Gauzak horrela, ondorioztatzen da gastuak honako hauek direla:

- |                           |            |
|---------------------------|------------|
| a) Zuzeneko laneskua      | 2.392.694€ |
| b) Makineriaren erabilera | 770.673€   |
| c) Egitura                | 363.742€   |



Udalerri bakoitzari esleitutako kuoten zenbatekoaren xehetasunak:

Udalerriak	Zerbitzua		
	Hiri Hondakinen bilketa		Bideen garbiketa
	GHK kuota, altako kudeaketa, eurotan	MCD kuota, bajako kudeaketa, eurotan	Garbiketa-zerbitzuagati ko kuota, eurotan
Mallabia	43.679,15	234.275,20	35.406,06
Ermua	763.571,97	888.017,28	758.325,89
Eibar			1.294.957,06
Soraluze	187.403,22	204.223,73	230.515,20
Elgoibar	550.244,72	924.055,06	477.741,27
Mendaro	96.194,30	116.574,82	55.054,96
Deba	259.382,77	364.506,73	378.386,06
Mutriku	252.308,26	397.792,03	296.722,28
<b>Guztira</b>	<b>2.152.784,39</b>	<b>3.129.444,85</b>	<b>3.527.108,72</b>

Udalerrria	HHSen tasak
Eibar	2.902.840,56
<b>Guztira</b>	<b>2.902.840,56</b>

Diru-sarrera horiek osatuko dira "Ecoembes" sozietateari honako hauengatik igorriko zaion fakturazioaren ondoriozko baliabideekin: lehenik eta behin, bildutako ontziak eta papera eta paper-salmenta (565.882,00 euro), bigarrenik, finantza-aurrerakinen itzulketa (6.784,00 euro), hirugarrenik, Eibarko Udalak finantzatutako fatxada-garbiketako zerbitzua (37.000,00 euro), laugarrenik, bestelako hainbat kontzeptu (35.152,00 euro), eta azkenik, diru-sarrera finantzarioak (4.200,00 euro).

### **FINANTZA EGOERA:**

Hasiera batean, esan genezake eskuragarri ditugun baliabideen bilketaren arintasunari eta aldizkakotasunari esker, gastuak behar den epean ordain ditzakegula, eta horregatik, ez dela aurreikustekoa diruzaintzan tentsiorik edo desfaserik sortzea urtean, kobrantzei eta ordainketei dagokienez.



## ONDARE EGOERA

### DEBABARRENA ESQUALDEKO MANKOMUNITATEAREN BALANTZEA

#### AKTIBOA (2014ko abendua)

KONTZEPTUA		EUROTAN	
IBILGETUA:	EZ-MATERIALA	Ikerkuntza- eta garapen-gastuak Amortizazioak	130.044,15 -75.527,24
	MATERIALA	Lursailak eta natura-ondasunak Bestelako eraikuntza batzuk Makineria Tresnak Beste instalazio batzuk Altzariak Bulego-ekipamenduak Beste lanabes batzuk Informazio-prozesuetako ekipamenduak Garraio-elementuak Beste lbilgetu material batzuk Amortizazioak	371.333,77 701.383,85 9.873,86 314.413,68 1.077.708,58 613.235,03  6.596,63  14.672,85 -2.003.842,01
	FINANTZARIOA	Partizipazioak sektore publikoan Fiantza eta deposituak	180.303,63 72.539,07
	<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>		<b>1.412.735,85</b>
ZORDUNAK	Jarduneko ekitaldian onartutako eskubideengatiko zordunak Itxitako ekitaldietan onartutako eskubideengatiko zordunak Hainbat zordun Erakunde publiko zordunak Hornidurak	958.527,34 543,90 8.295,51  -287.325,55	
	<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>		<b>680.041,20</b>
FINANTZA KONTUAK	Finantza-inbertsioak Langileentzako kredituak Kutxako aurrerakinak Aplikatzeko dauden ordainketak Diruzaintza	2.286.000,00 2.479,17  -34.207,93 2.304.904,48	
	<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>		<b>4.559.175,72</b>
<b>AKTIBOAK GUZTIRA</b>		<b>6.651.952,77</b>	



## DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEAREN BALANTZEA

## PASIBOA

(2014ko abendua)

KONTZEPTUA		EUROTAN
FUNTS PROPIOAK	Ondarea	534.850,52
	Itxitako ekitaldien emaitza positiboak	4.363.042,53
	Itxitako ekitaldien emaitza negatiboak	-629.478,84
	Galerak eta irabaziak	1.116.801,91
	<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>5.385.216,12</b>
EPE LUZERAKO HARTZEKODUNAK	Epe luzerako zorrak	
	Fidantza eta deposituak	72.539,07
	<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>72.539,07</b>
EPE LABURRERAKO HARTZEKODUNAK	Jarduneko ekitaldian onartutako obligazioengatik hartzekodunak	1.009.055,44
	Itxitako ekitaldietan onartutako obligazioengatik hartzekodunak	4.029,62
	BEZarengatik hartzekodunak	6.529,07
	Aurrekontuan bildu gabeko beste hartzekodun batzuk	
	Entitate publiko hartzekodunak	148.142,65
	Beste zor batzuk	
	Jasotako fidantzak eta gordailuak	26.440,80
	<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>1.194.197,58</b>
<b>PASIBOAK GUZTIRA</b>		<b>6.651.952,77</b>

**BADESA Saren BALANTZEA****AKTIBOA****(2014ko abendua)**

KONTZEPTUA		EUROTAN
FINANTZA IBILGETZEAK	Luzerako finantza inbertsioak	360,66
	<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>360,66</b>
IBILGETUA:	EZ-MATERIALA	Azterlanak eta proiektuak* Amortizazioa
	MATERIALA	Eraikinak Makineria Tresnak Beste instalazio batzuk Altzariak Informazio-prozesuetako ekipamenduak Garraio-elementuak Beste Ibilgetu material batzuk Jarduneko eraikuntzak Muntatzen ari diren inst. teknikoak Amortizazioa
	<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>3.100.313,56</b>
ZORDUNAK	Bezeroak, Salmentak eta zerbitzu-ematea Hainbat zordun Zerga korranteagatiko aktiboak Administrazio publikoak Kaudimengabeziarako hornidura Ordainsarien aurrerakinak	420.198,81 1.632,06 48.091,98
	<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>469.922,85</b>
FINANTZA KONTUAK	Diruzaintza Aldi baterako finantza-inbertsioak Periodifikazioak epe laburrera Pertsonal kredituak	933.265,01 483.000,00 1.037,39 5.634,46
	<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>1.422.936,86</b>
<b>AKTIBOAK GUZTIRA</b>		<b>4.993.533,93</b>



**BADESA SAREN BALANTZEA****PASIBOA****(2014ko Abendua)**

<b>KONTZEPTUA</b>		<b>EUROTAN</b>
FUNTS PROPIOAK	Harpidetutako kapitala	180.303,63
	Birbalioespeneko erreserba	129.309,74
	Erreserbak	2338.427,63
	Aurreko ekitaldietako emaitzak	71.633,80
	Galerak eta irabaziak	168.227,05
	<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>2.887.901,85</b>
ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO DIRU-SARRERAK	Kapitaleko diru-laguntzak	391.243,28
	<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>391.243,28</b>
EPE LUZERAKO HARTZEKODUNAK	Kreditu-erakundeekiko zorrak	781.289,63
	<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>781.289,63</b>
EPE LABURRERAKO HARTZEKODUNAK	Zerga geroratuen zorrak	
	Epe laburrerako zorrak	322.786,51
	Hartzekodun komertzialak	396.243,30
	Administrazio publikoak	168.111,48
	Ordaintzeke dauden ordainsariak	25.414,92
	Jasotako fidantzak	20.542,96
	<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>933.099,17</b>
<b>PASIBOAK GUZTIRA</b>		<b>4.993.533,93</b>